

**PASIAKO UDALEAN
EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO
PLANA 2023-2027**

Proposamena

Aurkibidea

1.- Sarrera:	3
1.1.- Udalaren euskara planak:	
a) Euskararen Plan estrategikoa 2022-2030	
b) Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.	
2.- Planaren aurrekariak eta testuingurua:	3
2.1.- Orain arteko mugarri nagusiak: lege-oinarriak eta udal- egitasmoak...	
3.- Plana diseinatzeko metodologia, faseak eta partaideak	5
3.1.- KEMEN metodologia	
3.2.- Partaideak eta faseak.	
4.- 2023-2027rako Plan Estrategikoa	5
4.1.- KEMEN metodologia	
4.2.- Oinarrizko irizpideak.	
4.3. Planaren egitura: Kudeaketa eta Erabilera.	
4.4. Diagnostika eta proposamenak arloz arlo	
4.4.1. Iturriak: galdetegiak, lantaldeetako ekarpenak.	
4.4.2. Adierazleen aurreikuspenak proposatzeko irizpideak.	
4.4.3. Plan Estrategikoaren taulen gaineko azalpenak.	
4.4.4. 2023-2027rako Plan Estrategikoa: taulak	
4.5. Genero ikuspegia planean	
5.- 2024 eta 2025erako kudeaketa plana	36
5.1.- Lehentasunak finkatzeko irizpideak	
5.2.- 2024ko kudeaketa planetik talde-lanketa eskatzen duten ekimenak	
5.3.- 2024rako kudeaketa plana, ekintzen taulak	

1.-SARRERA.

1.1. Udalaren euskara planak

Udalek bi plan onartu ohi dituzte hizkuntza normalizazioaren arloan, biak ere Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraikiz, eta biak berritzen dira 4-5 urtean behin:

a. Euskararen Plan estrategikoa 2022-2030

Euskararen lehenbiziko Plan Estrategikoa 2010ean jarri zuen abian Pasaiaiko Udalak hamar urtetara-ko, eta 2022-2030erako bigarrena osatzen aritu da Pasaiaiko Euskararen Aholku Batzordea, izenez Bokale deritzona. Udalaz gain, Pasaian euskara sustatzeko lanean diharduten hainbat arlotako eragilek osatzen dute batzorde hori, besteak beste, barrutietako Euskara batzordeek, enpresek, euskaltegiek, gazte-taldeek, ikastetxeek eta merkatariek.

Azken hamar urteotan egindako lana handia izan da, eta bereziki nabarmendu da Udalaren eta herriko eragileen artean egitura sendoa eratu delako, eragile horiek lau barrutietakoak izaki. Eta hurrengo urteetarako plan estrategikoa lantzean, batetik, barruti bakoitzaren izaerari begiratu zaio; eta bestetik, sektorez sektore landu da, lanmahaietan aztertu eta gero. Era berean, Euskararen Plan Estrategiko horrek Udalari ere hainbat konpromiso eskatuko dizkio; euskararen sustapenean Udala eredu eta sustatzaile izatea, esaterako.

Laburbilduz, Pasaian aurrerantzean euskararen arloan lehentasunak zeintzuk izango diren aztertu da. Herritarrek ez ezik, eragileek ere elkarlanean aritu beharra izango dute, euskara zabaldu eta sendotu-ko bada.

b. Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Udal administrazioan garatuko den hizkuntza-politika jasotzen da plan honetan. Bigarren plan hau da dokumentu honetan jaso duguna eta udalerriko Plan Estrategikoarekin batera uztartuko dena.

Lau-bost urteko iraupena izan ohi dute planok eta oraingoa VII. Plangintzaldiari dagokiona da, eta 2027ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.

Edonola ere, plan hau oinarria da eta irauten duen 5 urteetan jaso litezkeen ekarpenekin aberasten eta egokitzen joango da, betiere, bertan jasotako helburu eta irizpide orokorrei jarraikiz.

Bestalde, plan estrategikoaz gain, 2024rako kudeaketa-plana ere osatu eta jaso da bertan.

2.- PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2.1. Orain arteko mugarri nagusiak: lege-oinarriak eta udal-egitasmoak...

Berrogei urte bete ziren 2022an Euskararen normalizazio legea onartu zenetik. Hura izan zen administrazioa euskalduntzeko EAE mailako lehenengo lege-oinarria, eta haren haritik beste hainbat lege, dekretu eta plan etorri ziren. Hemen horietako nagusiak jaso ditugu.

LEGE-OINARRIAK

1982. 10/1982 Euskararen Normalizazio-legea. Bertan arautu ziren herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, administrazioko langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, administrazioko lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko

hizkuntza araubidea.

1989. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Lege horrekin loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) helburu nagusia administrazioko langileak euskaraz jarduteko gaitzea izan zen (gerora, lege hori Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legeak ordezkatu zuen).

1991. Pasaiako Udalaren Euskararen Udal Ordenantza onartu zen. Hizkuntza-irizpideak zehazten dira.

1997. 86/1997 DEKRETUA, *apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena*. Dekretu horrek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien EAEko herri-administrazio guztiei.

2016. 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udal lege berrian, 7. artikuluan lehenengo aldiz, "Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena."

2019. 179/2019 DEKRETUA, *azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa*. Dekretu horrek hainbat berrikuntza dakartza eta, zerbitzu hizkuntzan ez ezik, lan hizkuntzan ere urrats kualitatiboak emateko aukerak zabaltzen ditu.

Pasaiako Udalak 1988an sortu zuen Euskara Zerbitzua eta harrez geroztik herrian zein udalean euskara normalizatzeko bide luzea egin du, goian adierazitako araubide horren babesean. Hona hemen mugarri nagusiak:

- 1991. Pasaiako Udalaren Euskararen Udal Ordenantza onartu zen, udalerrian eta Udal barnean euskararen erabilera arautuko duena.

Udal barrukoak

- I. Plangintzaldiaren (1990-1995) helburua izan zen Administrazioako langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko. Pasaiako Udal honetan ere horretan egin genituen ahaleginik handienak, hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzen, langileak euskalduntzen eta alfabetatzen, eta abar.

- II. Plangintzaldian (1997-2002), hiru langile berri igaro ziren Euskara Zerbitzura Udal Euskaltegitik. Langileak euskalduntzen eta alfabetatzen jarraitzeaz gain, euskararen I. Erabilera Plana landu eta burutu genuen, 86/1997 Dekretuak ezarritako bidetik.

- III. Plangintzaldian (2003-2007), oinarri teoriko sendoak jarri ziren euskararen erabilerak gora egin zezan Administrazioan: administrazio-atalak eta lehentasunak definitu ziren, AEBEMET metodologia, hizkuntza normalizatzeko neurriak, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. Esparru publikoko langileak gero eta euskaldunagoak ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten, eta huraxe bilakatu zen erronkarik handiena Pasaiako Udalean onartu eta aurrera eraman genuen II. Erabilera Planean.

- IV. Plangintzaldiak (2008-2012) aldaketa handia ekarri zuen: planifikazio zehatz bat jarri zen martxan, euskara ere ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko, gaztelaniaren parean jarrita, bi hizkuntzen berdintasuna sustatuz horrela. II. Erabilera Planaren balorazioa egin eta III.a landu genuen, bi hizkuntza ofizialak maila berean erabiltzeko aukera bermatzeari begira.

- V. Plangintzaldian (2013-2017), IV. Erabilera Plana jarri genuen abian; eta, bestek beste, argi eta garbi ezarri zuen helmuga: euskara ere administrazioetako jarduneko ohiko lan-hizkuntza izatea. Pasaiako Udalak neurri handi batean bermatzen ditu herritarrekiko euskarazko komunikazioak; era berean, prestatuta dago gehiago edo gutxiago, euskaraz lan egiteko; hala eta guztiz ere, oraindik ere gaztelania da lan-hizkuntza nagusia, eta handia da itzulpenekiko mendekotasuna.

- VI. Plangintzaldira (2018-2022) iritsi ginen, eta plangintzaldi horretan aurreko erabilera planetan landutako lan-ildoei eusteaz eta jarraitzeaz gainera, hasi ginen aztertzen eta esploratzen Udalaren kudeaketa planean hizkuntza irizpideak nola txerta genitzakeen. Aurreko plangintzaldiaren balorazioa egin zen. Sailez sail, langile kopuru handi baten orain arteko balorazioa eta ondorengo urteetarako asmoak jaso ziren. Alderdiekin bilerak

egin ziren, hurrengo legealdirako konpromisorik hartzeko prestasunik agertzen ote zuten jakiteko. Hori guztia egituratzea izan zen xedea kudeaketa albait eraginkorra lortzea helburu genuela.

Udalerriko Euskararen Plan Estrategikoak

- 2010-2020 Udalerriko Euskararen Plan Estrategikoa. Herritarrekin eta herriko eragileekin barrutika osatua.

- 2022-2030 Udalerriko Euskararen Plan Estrategikoa. Arlokako eragileekin eta arlokako lan-ildo eta proposamenekin osatua.

3. PLANA DISEINATZEKO METODOLOGIA, FASEAK ETA PARTAIDEAK

3.1. KEMEN metodologia

Sarreran adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzak finkatu ohi ditu udalek eta gainontzeko administrazioek 4-5 urtean behin onartu beharreko euskara-planen oinarriak, eta planok diseinatu eta kudeatzeko metodologia ere proposatu ohi du.

2022an amaitu zen indarrean zegoen plangintzaldia eta plangintza berria egiteko metodologia berria diseinatu du Jaurlaritzak, KEMEN izenekoa.

Ondorioz, plan hau Eusko Jaurlaritzaren KEMEN metodologia prozesuaren baitan garatu da eta metodologia horren egituraren arabera antolatu da.

3.2.- Partaideak eta faseak.

Esan bezala, plana Jaurlaritzaren KEMEN metodologia prozesuaren baitan garatu da.

a. Lantalde teknikoa: Euskara Saileko Euskara teknikaria, hizkuntza-normalizatzaileak eta itzultzailea.

b. Batzorde eragilea: alkatea, Euskara Saileko zinegotzi ordezkaria, idazkaria, Antolaketa eta GGBBetako teknikaria, kontu-hartzailea, udaltzainburua, Hirigintza eta Ingurumen Saileko arduraduna, Sare eta Mantentze-lanetako Sailaren arduraduna, Langileen Batzordeko lehendakaria, alkatearen idazkaria eta komunikazio arduraduna, euskara teknikaria, irakaslea-hizkuntzaren normalizaziorako teknikaria.

Prozesuan zehar, berriz, honako urratsak aurreikusi dira:

a. Komunikazioa, aurrelana.

b. Diagnosia

- Galdetegiak

- Alderdi kualitatiboak lantzea

c. Plan Estrategikoa lantzea

d. Plan Estrategikoa Euskara Saileko lankideekin partekatzea eta osatzea

e. Kudeaketa plana lantzea

f. Plana osorik aurkeztea

g. Plana onartzea

Plan Estrategikoaren lanketa Talde Teknikoan, Batzorde Eragilean eta Osoko Bilkuran egin da.

4.- 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.1.- Helburua:

Aldundiak badu 2030. urterako helburu bat Gipuzkoarako: udalak arnasmune izatea.

Hori kontuan izanik, honakoa da plan honen amaierako helburutzat finkatzen den egoera: Pasaiaiko Udalak 2027rako euskararen arnasmunea izateko bidea egingo du, bereziki, euskarazko lau atal hauetan: Haur eta Nerabeen Saila; Gizarte Ekintza Saila, eta Berdintasun, eta Migrazioa eta Aniztasunaren arloak; Hirigintza Saila eta Kultura Saila.

Euskara izango da bertako ohiko lan-hizkuntza, bai ahoz bai idatziz, eta kanpokoekin ere, ahal den guztietan, euskarazko funtzionamendua bultzatuko du.

Era berean, euskararen erabilera indartzeko helburu hori lortzeko bidean, planak badu beste helburu bat ere: kudeaketan jauzi kualitatibo bat ematea, kudeaketa eraginkorrago bat lortzea eta lidergoa sustatzea.

4.2.- Oinarrizko irizpideak.

2023an landu da hizkuntza irizpideen dokumentu berria, eta planaren oinarri izango diren 10 irizpide nagusiok finkatu dira:

1. KUDEAKETA

1. Kudeaketa sistema. Euskararen erabileraren normalizazioa udalaren kudeaketa orokorrean txertatuko da, eta udal organo eta sail bakoitzak bere arloko ardurak hartuko ditu. Horiekin batera, euskararen ezagutzan, erabileran eta kudeaketan erakundeak duen maila ikusirik, eta bikaintasuna helburu, Bikain kanpo-ebaluazioa egingo dugu, bai erakundea osotasunean ebaluatua izateko, bai ondoen dauden administrazio-unitateak ebaluatua izateko.

2. Jarraipena. Planaren jarraipen sistematikoa egingo da, horretarako adierazle-panelean zehaztutako informazioa jasota.

3. Lidergoa, eredugarritasuna. Udaleko kideak, bereziki, ardura postuak dituzten politiko zein langileak eredu izango dira euskarari dagokionez eta jarrera proaktiboa izango dute: euskaraz egingo dute eta euskaraz egitea bultzatuko dute euren jardunean.

4. Hizkuntza klausulak. Hizkuntza irizpideak txertatuko dira enpresak kontratatzerakoan zein dirulaguntzak ematerakoan, eta horien betetzearen jarraipena egingo da.

2. ERABILERA

5. Udaleko ohiko hizkuntza. Udal jarduneko ohiko hizkuntza euskara izateko urratsak egingo dira, bai ahoz, bai idatziz.

6. Irudia. Udalaren irudia osatzen duten elementuak (errotulazioak, inprimakiak, webguneak, sare sozialak...) euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez gauzatuko dira.

7. Euskarazko harreman sarea. Kanpo harremanetan ere euskara hutsezko harreman sarea zabaltzea bultzatuko da: herritarrekin, enprekin, erakundeekin, elkarteekin...

8. Sortze-hizkuntza. Testuen sortze-hizkuntza euskara izateko urratsak egingo dira. Bereziki, euren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz lan egingo dute eta, arrazoiren bategatik testua ele bietan bideratzekoa bada, itzulpena Euskara Zerbitzuan egingo da, itzulpenetarako irizpideei jarraikiz.

9. Ele bietakoetan euskarari lehentasuna. Ele bietan egin behar denean, euskarari lehentasuna emango zaio, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan. Eta ahal den guztietan euskarazko eta ele bietako idatziak bereiziko dira.

10. Hizkera argia. Euskarazko testuetan kalitatea (ulergarritasuna eta zuzentasuna) ziurtatuko da, bereziki herritarrei bideratzen zaizkienetan.

Hemen jaso gabekoetarako hizkuntza-irizpideen dokumentuan jasotakoak izango dira indarrean.

4.3.- Planaren egitura: kudeaketa eta erabilera.

KEMEN metodologiak proposatutako egiturari jarraikiz antolatu da plana, honako bi ardatzetan:

KUDEAKETA. Euskara plana nola gestionatzen den jasotzen da hemen: plana bultzatzeko

zein egitura duen, departamentu bakoitzak plana asumitu eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartzen duten, enpresak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Honako arloak hartzen ditu: Euskararen kudeaketa orokorra, Lidergoa, Langileak, Gaitasuna, Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa eta Hizkuntza klausulak.

ERABILERA. Udalak zein hizkuntzatan funtzionatzen duen jasotzen da hemen. Bai ahoz bai idatziz, udal barruan zein kanpokoekin duen harremanetan. Eta baita idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren ere.

Honako arlo hauek hartzen ditu:

Zerbitzu Hizkuntzaren barruan: Irudia eta Herritarrekiko harremanak.

Lan Hizkuntzaren barruan: Barne harremanak, Kanpo harremanak, Prestakuntza eta Sortze-hizkuntza.

4.4. Diagnostika eta proposamenak, arloz arlo.

4.4.1.- Iturriak: Pasaiko Euskararen II. Plan Estrategikoa 2022-2030, galdetegiak, lantaldeetako ekarpenak.

Diagnostika egiteko 34 adierazle erabili dira 4.3. puntuan adierazitako bi ardatzetan banatuta: Kudeaketan, 16 adierazle eta Erabileran 18 adierazle.

34 adierazleen gaineko informazioa jasotzeko bi galdetegi erabili dira: *Langileentzako galdetegia* eta *Erakundearen galdetegia*. Langileentzako galderak pertzepzioz betetzekoak ziren eta Erakundearen galdetegikoak batzuk pertzepzioz eta beste batzuk behaketaz, datuak jasota. Tauletan adierazi dugu adierazle bakoitzaren iturria.

Langileentzako galdetegia 97 langilek (192 langileri bidali zitzaientzen) bete dute eta Erakundearen galdetegiko galderak nagusiki Euskara Zerbitzuak erantzun ditu, batzuetan sailtetako teknikariek kontrastatuta.

Tauletan jasotako kopuruak bi galdetegi horien bidez jasotakoak dira.

Plan Estrategikorako proposamenak ere hainbat bidetatik jasoak dira: lehenengo eta behin aintzat hartu dira herrira begirako Euskararen 2022-2030 plan estrategikoan jasotakoak; bigarrenik, talde teknikoan jasotakoak. Azken proposamena Batzorde Eragilearen bileran landu da.

4.4.2.- Plan Estrategikoaren taulen gaineko azalpenak Adierazleen inguruan.

Datuen iturriak. Tauletan adierazle bakoitzaren datuen iturria jarri dugu. Aurrez esan bezala, bi izan dira nagusiak: langileei helarazitako galdetegia eta Udalak betetako galdetegia. Lehenengoa pertzepzioz betetzekoa izan da, inolako datu-bilketarik egitea eskatu gabe. Bigarrenik, berriz, galdera batzuei pertzepzioz erantzun zaie eta beste batzuetan lagin bat aukeratu eta behaketa egin da. Adierazle batzuetan bi iturriak ere erabili dira.

Adierazlearen garrantzia edo erabilera. Tauletan jasotako adierazleak Eusko Jaurlaritzak

KEMEN metodologiaren barruan finkatutakoak dira. KEMEN metodologiaren barruan 47 adierazle proposatzen dira baina horietako 14 adierazle jotzen ditu Jaurlaritzak garrantzitsuentzat eta erakunde guztiok derrigorrez jaso eta Jaurlaritzari bidali beharrekotzat. "Jaurlaritzaren aginte panelekoa" azalpena dutenak dira. Horretaz aparte, badira beste adierazle batzuk Udalak aukeratu dituenak. Horiek ere adierazi ditugu.

4.4.4. 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA (TAULAK)

1. ardatza. KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	300
49,40	148,20	70,3	210,9	

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

Euskara Sailaren ustetan kudeaketan urratsak egin behar dira aurrera.

Oinarria badago horretarako: langileek gaitasun altua dute eta politikoei euskara bultzatzeko prestasuna agertu dute.

Alabaina, erabileraren egoera hobetzeko, kudeaketako arlo gehienetan hobetu beharra dago, bereziki sistematizazioaren aldetik. Ildo horretan, helburu nagusi hauek proposatzen dira:

- Hizkuntza-politika kudeaketa orokorrean integratzeko aurrerapausoak egitea.

- Egitura egokia antolatzea, udalaren kudeaketa orokorrean txerta dadin. Batzorde Eragilea sortu berri dugu 2023ko abenduan. Partaideak hauek dira: alkatea, Euskara Saileko zinegotzi ordezkaria, idazkaria, Antolaketa eta GGBBetako teknikaria, kontuhartzailea, udaltzainburua, Hirigintza eta Ingurumen Saileko arduraduna, Sare eta Mantentze-lanetako Sailaren arduraduna, Langileen Batzordeko lehendakaria, alkatearen idazkaria eta komunikazio arduraduna, euskara teknikaria, irakaslea-hizkuntzaren normalizaziorako teknikaria.

- Jarraipen sistematikoa egitea urteko kudeaketa-plana gauzatzen ari dela egiaztatzeko eta irizpideak betetzen ari direla bermatzeko.

- Horiekin batera, euskararen ezagutzan, erabileran eta kudeaketan erakundeak duen maila ikusirik, eta bikaintasuna helburu, Bikain kanpo-ebaluazioa egitea, bai erakundea osotasunean ebaluatua izateko, bai ondoen dauden administrazio-unitateak ebaluatua izateko.

- Erabilera planaren gaineko komunikazioa hobetzea.

- Politikari zein langileen parte-hartzea sustatzea, eta udal organo zein sailek planarekiko ardurak hartzea.

- Udalerriaz gaindiko elkarlana indartzea, bakarka zailak diren hainbat ekimen elkarrekin bideratzeko: UDALEKIN...

- Adierazleen aginte-panel komuna izateak horretarako balio behar digu. Eusko Jaurlaritzaren gidalerroei jarraitzea lagungarria izango

zaigu.

1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
30	18	82	49,20	60

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.1.1: Udalak plan estrategiko eta kudeaketa-plana kudeatzeko sistema egituratua osatu du.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E1 galdera. Iritzira betea.</p>	<p>Egoera: Oraingo kudeaketa sistemako osagai nagusiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskara Saila da plana exekutatzearen eta jarraipena egitearen arduradun nagusia. Planean aurreikusten dira plangintzarako eginkizunak, eta sailak gidatzen eta bideratzen ditu. Koordinazio-bileretan aztertzen dira eginkizunak, eta batzordeburua jakinaren gainean egoten da. Hainbat gai jorratzen dira: kontratazioa, euskarazko atalak... Udalak osatu berri du plan estrategiko eta kudeaketa-plana kudeatzeko sistema egituratu bat. Partaideak hauek dira: alkatea, Euskara Saileko zinegotzi ordezkaria, idazkaria, Antolaketa eta GGBBetako teknikaria, kontu-hartzailea, udaltzainburua, Hirigintza eta Ingurumen Saileko arduraduna, Sare eta Mantentze-lanetako Sailaren arduraduna, Langileen Batzordeko lehendakaria, alkatearen idazkaria eta komunikazio arduraduna, euskara teknikaria, irakaslea-hizkuntzaren normalizaziorako teknikaria. Urtean bi edo hiru aldiz biltzeko konpromisoa hartu dute kideek. Udalez gaindiko koordinazioa eta gai batzuen lanketa mesedegarria da: Gipuzkoako lurralde mailan UDALEKIN. Gai batzuetarako oso kontuan hartzekoa da (arnasguneak, euskarazko atalak...) <p>Indarguneak: Lanerako oinarri ona dago. Langile eta politikoez prestasuna agertu dute hizkuntza gaiez jarduteko eta arduratzeko. Batzorde Eragilea sortu da.</p> <p>Planerako neurriak</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.1.1.a Egitura: sortu den Batzorde Eragilea operatiboa izatea. 	0	100

<p>1.0.1.2. Udalak plan estrategiko eta kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten du (<i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i>)</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E2 galdera. Iritzira betea.</p>	<p>Egoera: Orain artean Udalak ez dio jarraipen handiegirik egin euskara planari.</p> <p>Indargunea: - Sortua dugu orain jarraipenerako Batzorde eragilea. Horrekin batera Eusko Jaurlaritzak ezarritako metodologia eta gidalerroak oso lagungarriak izango zaizkigu. - Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentu berria sortu izana.</p> <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.0.1.2.a Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentu berria onartzea. • 1.0.1.2.b Udal Legean jasota dauden lege-betebeharrak aztertzea eta arian-arian betetzea, kudeaketa plan bakoitzean urtekoak zehaztuz. • 1.0.1.2.c Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea: ditugun helburuekin eta lehentasunekin uztartua, egoki definitutakoa, datuak biltzeko modua, arduradunak, maiztasuna eta epeak zehaztuta izango dituen. • 1.0.1.2.d Urteko kudeaketa-plana nola gauzatzen ari den jarraipen sistematikoa egitea; baita hizkuntza- irizpideen betetze mailaren jarraipena ere. <ul style="list-style-type: none"> • 1.0.1.2.e. Urtez urte kudeaketa plana diseinatzea, Plan Estrategikoan oinarrituta. • 1.0.1.2.f. Bikain kanpo-ebaluazioa egitea. 	<p>50</p>	<p>70</p>
---	--	------------------	------------------

1.0.2 arloa. LIDERGOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
54,2	40,65	65	48,75	75

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E5 galdera. Iritzira betea.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera: Orain artean arduradun politiko eta teknikoek ez dute zuzenean parte hartu diseinu, garapen eta jarraipenean.</p> <p>Indargunea - Aurrerantzean, arduradun politiko eta teknikoek planaren diseinu, garapen eta jarraipenean parte hartzeko prestasuna agertu dute. - Politikari eta langile askok agertu dute euskararen aldeko konpromisoa, eta askok dute hizkuntza- jokabide eredugarria.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.2.5a Arduradun politiko eta teknikoek hizkuntza-irizpideak betetzeko jarraipena egitea. 1.0.2.5b Arduradun politiko eta teknikoek erakundearen euskararekiko xedea barneratzea. 1.0.2.5c Arduradun politiko eta teknikoek sustapen-lana egitea, eta haien kargupekoak euskararen normalizazioan inplikatzeko. 1.0.2.5d Arduradun politiko eta teknikoek helburuak lortzeko behar besteko baliabideak eta tresnak jartzea, eta bete ezean, neurri zuzentzaileak jartzea.</p>	58,4	70

<p>1.0.2.5. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia E4.1, E4.2, E4.3. galderak. Iritzira betea.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Egoera: Berriki arduradun politikoak eta teknikoak zuzenean parte hartzen hasi dira osatu berri den Batzorde Eragilean.</p> <p>Indargunea Batzorde eragilea sortu izanak lagundu egingo digu arlo honetan. Deitutako kide guztiak bertaratu ziren bilerara, eta guztiek hartu zuten parte.</p> <p>Planerako neurriak: 1.0.2.4.a Batzorde eragilea urtean bi edo hiru aldiz biltzea. 1.0.2.4.b. Batzorde eragileko kideak prozesuari buruzko informazioa jasotzea eta hala eskatzen zaienean, planen garapen eta jarraipenerako ardurak hartzea.</p>	<p>50</p>	<p>60</p>
---	---	------------------	------------------

1.0.3 arloa. LANGILEAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	60
75,20	45,12	81,40	48,84	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.3.7. Langileei ematen zaie informazioa plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.</p> <p>Datuen iturriak (bi hauen batez bestekoak):</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundearen galdetegia E7 galdera. Iritzira betea. Langileen galdetegia, L1 galdera. 	<p>Egoera Komunikazioari dagokionez, hainbat bide erabili ohi dira: langileen harrera-protokoloa; sailetako buruei eta langileei zuzenean helarazi zaie informazioa. Edonola ere, ez dago horretarako estrategia landurik.</p> <p>Indargunea:</p> <ul style="list-style-type: none"> Sortua dugun jarraipenerako Batzorde eragilea lagungarria izango da arlo honetan. Horrekin batera Eusko Jaurlaritzak ezarritako metodologia eta gidalerroak oso lagungarriak izango zaizkigu. <p>Planerako neurriak 1.0.3.7.a Langileei sailetako buruen bitartez erabilera plana eta hizkuntza-irizpideen berri ematea. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta horretan laguntzea. Haien ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea... Langile berriei harrera egitea Giza Baliabideen Sailean, eta harrera-protokoloan euskararen gaiari arreta jartzea.</p>	61,4	70
<p>1.0.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L2 galdera. Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Langileek, oro har, betetzen dituzte dagozkien hizkuntza-irizpideak.</p> <p>Indargunea: - Hizkuntza-irizpideen dokumentu berria sortu dugu eta onartzean dago.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.3.8.a Hizkuntza-irizpideen dokumentu berria zabaltzea. Horretarako, sortuko dugun laburpena (edo, dena delako euskarria) zabaltzea.</p>	85,6	90

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.3.11 Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz. Datuen iturria: langileen galdetegia. L5.1, L5.2 galderak</p>	<p>Egoera Langileek, oro har, iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz</p> <p>Indargunea:</p> <ul style="list-style-type: none"> Sortua dugun jarraipenerako Batzorde eragilea lagungarria izango da arlo honetan, sailetako buruek langileengan eragiteko ahalmena dutelako eta hedapena handiagoa izango delako. Horrekin batera Eusko Jaurlaritzak ezarritako metodologia eta gidalerroak oso lagungarriak izango zaizkigu, lan egiteko modu antolatu eta bateratua izango dugulako. <p>Planerako neurriak 1.0.3.11.a Planaren zabalkundean sendotu beharra dugu. Horretarako, euskara ataletan gutxienez, sailetako bilerak egin teknikari buruekin eta politikari buruekin Udaleko Euskararen Plan Estrategikoa eta urteko kudeaketa plana aurkezteko. Hala ere, aurrez, Batzorde Eragilean zehaztuko dugu zabalkunderako modu hori.</p>	80,4	90

1.0.4. arloa. GAITASUNA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	-
80,70	-	85	-	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E6 galdera. Iritzira betea.</p>	<p>Oro har gaitasun ona. Langileek, oro har, badute maila on samarrean euskaraz jarduteko adinako gaitasuna. Jardun idatzi dezentea duten ia guztiek 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna dute egiaztatuta. Ia teknikari guztiek 4.a eta administrari, administrari laguntzaile eta zerbitzuetako buruek 3.a.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>1.1.4.12.a Hizkuntza eskakizuna eskuratuta ez dutenak animatzea, bereziki, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eskura dezaten. Eta eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenei ere baliabideak eskaintzea euskaraz ahoz egin dezaten.</p> <p>1.1.4.12.b Ahozko jarduna sendotzea, gaztelaniara jotzen dutelako modu ez formalean.</p> <p>1.1.4.12.c 19/2024 Dekretuaren 17. artikulua finkatu bezala, entitatearen plantillaren hizkuntza-eskakizunen eta haien derrigortasun-daten inguruko xehetasunak txertatzea.</p> <p>1.1.4.12.d Dekretu berriaren arabera, HE asimetrikoak lantzea.</p>	91,2	95
<p>1.0.4.13 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L7 galdera.</p>	<p>Oro har gaitasun ona. Jardun idatzi dezentea duten ia guztiek dute 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Ia teknikari guztiek 4.a eta administrari, administrari laguntzaile eta zerbitzuetako buruek 3.a.</p> <p>Ahulguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Edonola ere, kontuan hartu beharra dago horietako askok gai teknikoetarako gaitasun hobea dutela gaztelaniaz, eta gaztelaniaz egiteko joera dutela, bereziki, presazko kontuak direnean. <p>Planerako neurriak</p> <p>1.0.4.13.a Hizkuntza eskakizuna eskuratuta ez dutenak animatzea, bereziki, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eskura dezaten. Eta eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenei ere baliabideak eskaintzea euskaraz idatziz egin dezaten.</p> <p>1.0.4.13.b Idatzizko euskarazko jarduna sendotzea.</p> <p>1.0.4.13.c 19/2024 Dekretuaren 17. artikulua finkatu bezala, entitatearen plantillaren hizkuntza-eskakizunen eta haien derrigortasun-daten inguruko xehetasunak txertatzea.</p>	76	80

	1.0.4.13.d Dekretu berriaren arabera, HE asimetrikoak lantzea.		
--	---	--	--

<p>1.0.4.14 Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko. Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E8 galdera. Iritzira betea.</p>	<p>Egoera: Legealdi honetan aurrekoetan baino arduradun politiko gehiago dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna dutenak. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute hamaikak (11). Euskara ulertzen dute eta hitz egiteko oinarrizko gaitasuna dute bik (2). Euskarazko oinarrizko ulermen maila dute lauk (4).</p> <p>Ahulgunea: Bi (2) batzordeburuk ez dute euskaraz hitz egiteko gaitasunik, zehazki, Hautzaroa, nerabezaroa eta gazteria sustatzeko Batzordea; Jarduera fisikoaren eta Kirolaren Batzordea; Pertsonal eta Antolakuntzaren Batzordea; eta Hiri-mugikortasuneko Batzordea. Bi zinegotzi horien gaitasunak eragina du batzordean eta haien eragin esparruan.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.4.14 a Ordezkeri politikoak euskaldunak izan daitezten alderdi politikoeekin sentsibilizazio-lana egiten jarraitzea, udalaren euskarazko funtzionamendua bermatzeko. 1.0.4.14 b Udaleko hautetsiei euskaraz ikasteko laguntzak eta aukerak eskaintzea. 179/2019 Dekretuko 19.3 lege-betebeharra.</p>	<p>75</p>	<p>80</p>
--	---	------------------	------------------

1.0.5. arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
43,7	19,66	62	27,90	45

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.5.15. Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E9 galdera. Iritzira betea</p>	<p>Egindakoak: Udalak prentsa-oharren, euskarrien eta ekitaldi berezien (Topaketak...)bitartez jakinarazten die herritarrei euskararen plan estrategikoa abian jarri dela. Halaxe egin du 2022-2030 aldiko planarekin. Horretaz gain, zeharka, euskara sustatzeko antolatzen dituen ekintzen bidez, udalak transmititzen du euskara sustatzeko asmoa.</p> <p>Indarguneak: Interes-taldeei komunikatzen zaie Udalak euskara sustatzeko duen estrategia. Bokale eta arlokako elkarguneak eta barrura begirako Batzorde Eragilea sortu izana eta euskara sustatzeko estrategia bateratu bat izatea eta herritarrei komunikatzea.</p> <p>Ahulguneak: Hala ere, zenbaitzuetan zehatzago eta zuzenago komunikatu behar luke. Adibidez, harremana dugun enpresei zuzenean adieraztea, eurekiko harremana euskaraz izatea nahi dugula eta eurak ere guregana euskaraz zuzen daitezela. Baita euskaraz egiten dutenean zoriontzea eta hala jarraitzera animatzea ere.</p> <p>1.0.5.15.a Ud Planerako neurriak Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia aktiboki komunikatzea: - Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei. - Zuzeneko komunikazioa, udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte eta abarrei. - Elkarguneetan, Bokalen... 1.0.5.15.b Dirulaguntzetan, hitzarmenetan, udal-aretoen erabileran eta jabari publikoen erabilerarako zehaztutako hizkuntza-klausulak elkarguneetan komunikatzea.</p>	25	50

	1.0.5.15.c Herritarrek udalarekin harremanak zein hizkuntzatan nahi dituzten jasotzeko komunikazio-kanpaina egitea, euskaraz egiteko aukera dutela azpimarratuz eta horretara animatuz.		
--	---	--	--

<p>1.0.5.16 Udalak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeo ekimenetan parte hartzen du.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E10.1, E10.2 galderak.</p>	<p>Egindakoak Udalak parte hartzen du euskararen erabileraren normalizazio- eta biziberritze-arloari dagozkion beste esperientzia eta praktika on batzuk ezagutzeko eta partekatzeko, eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasotzeko askotariko ekimenetan (jardunaldiak, lan-saioak, Udalekin, Udaltop, AriGara plataforma, eta beste).</p> <p>Planerako neurriak 1.0.5.16.a Euskararen normalizazio-prozesuaren baitan, beste esperientzia batzuk ezagutzeko ekimenetan parte hartzen jarraitzea eta gure eskarmentua partekatzea.</p>	<p>87,20</p>	<p>90</p>
---	--	---------------------	------------------

1.0.6. arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
41,30	24,78	60,50	36,30	60

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.6.17. Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E11 galdera, laginketaz. Erabilitako lagina: ESKUAN begiratu dugu.</p>	<p>Egindakoak Kontratueta beharrezkoak diren hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.6.17.a Hizkuntza-klausulak txertatzen jarraitzea.</p>	<p>100</p>	<p>100</p>

<p>1.0.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E12 galdera.</p> <p>Erabilitako lagina: Eskuan begiratu dugu.</p>	<p>Egoera: Dirulaguntza eta hitzarmen batzuetan txertatzen dira hizkuntza-klausulak, nahiz eta ez den sistematikoki egiten.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>1.0.6.18a Dirulaguntzetan, hitzarmenetan, udal-aretoen erabileran eta jabari publikoen erabileran hizkuntza- klausulak txertatzea.</p> <p>1.0.6.18b Dirulaguntza-sisteman hizkuntza-klausulak bateratzea; bereziki, sustapen arlokoak.</p>	75	80
<p>1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E13 galdera. Iritzira betea.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera: Berez, finkatu izan dira jarraipenerako prozedurak baina gero, lan-kargagatik edo zehaztapen ezagatik ez dira modu sistematikoan gauzatu izan. Hala ere, esateko moduan gaude kopuru handi batean betetzen direla.</p> <p>Udalekin egitasmoarekin batera jarraipenerako fitxa bat sortu zen, eta erabilera eman behar zaio horri, gutxitan erabili dugu-eta.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>1.0.6.19.a Kontratuetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraza eta eraginkorra diseinatzea eta inplementatzea.</p> <p>1.0.6.19.b Udalekin (Gipuzkoako udal teknikarien foroa) egitasmoan parte hartzea, plangintzaldi honetan jarraipena emango baitzaio gaiari Gipuzkoako udalek bide bertsua jarraitzeko.</p>	25	50

<p>1.0.6.20 Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. Iturria: erakundearen galdetegia. E14 galdera. Iritzira betea.</p>	<p>Egoera. Dirulaguntza eta hitzarmenen hizkuntza-klausulei ez zaie jarraipen sistematikorik egiten.</p> <p>Planerako neurria 1.0.6.20.a Dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraza eta eraginkorra diseinatzea eta implementatzea.</p>	<p>25</p>	<p>50</p>
---	---	------------------	------------------

2. ardatza. ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	700
72,20	505,40	77,50	542,50	

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

Euskararen erabilera ona da oro har Pasaiko Udalean. Zerbitzu-hizkuntza ia bermatuta dago eta laneko hizkuntzari dagokionez urrats handiak egin dira.

Hobetzeko aukera hauek proposatzen dira:

- Euskaraz lan egitera igarotzea da erronka, eta horretarako hutsuneak betetzen joatea. Langileen arteko ahozko harremanetan arreta jartzea komeni da, euskara langileen arteko ohiko hizkuntza izateko.
- Plangintzaldi honetan euskarazko atal gehiago zehaztuko dira, euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak gain. Zehazki, Haur eta Nerabeen Saila 2024an; Gizarte Ekintza Saila, Berdintasunaren Arloa eta Aniztasuna eta Migrazioa 2025ean; Hirigintza Saila 2026an eta Kultura Saila 2027an. Euskarazko ataletako irizpideak zehaztu behar dira eta horretarako lagungarri izango zaigu UDALEKIN egitasmoan egiten ari garen praktika.

Udal barruko funtzionamenduari dagokionez, hori da, beraz, erronka nagusia: bai ahoz eta bai idatziz **euskaraz lan egitera igarotzeko hutsuneak betetzen joatea**: ahozko erabileran daudenak, sortze-hizkuntzan daudenak, prestakuntzari dagozkionak, ...

Kanpo harremanei dagokienez, Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituztenen erregistroa

sortzea da helburua. Halaber, Udalak bi arlo hauetan ahalegina egin beharko luke:

- Udalak enpresei, herritarrei eta erakundeei ele bietan bideratzen dizkien komunikazioak ahal den neurrian euskaraz bideratzea.
- Udalak beste erakunde batzuetatik, enpresetatik eta herritarrengandik jasotzen dituen idatzietan euskarazko harremana bultzatzea.

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	210
94,10	197,61	100	210	

Oharra: 2025eko ebaluazioan, euskara hutsean egiten dena edo ele bietan egiten dena berezituta jasoko dugu.

2.1.1. arloa. IRUDIA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	42
100	42	100	42	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
2.1.1.21 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude. Iturria: erakundearen galdetegia. E15.1, E15.2. galderak.	EGOERA - Pasaiaiko Udalak bere irudi korporatiboarekin zerikusia duten elementuak euskaraz edo ele bietan ditu. Ele bietan denean euskarazkoa lehenesten da. Planerako neurria 2.1.2.21 a Errotuluak eta ikus-entzunezkoak euskara hutsean jartzea 18 urtetik beherakoentzako gunean direnean. 2.1.2.21 b Gainerako herritarrei zuzendutako errotuluetan euskara hutsean jartzea honako kasu hauek: <ul style="list-style-type: none"> a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean. b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean. c) Mezuarekin batera piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko. 2.1.2.21 c Orain arte bezala, errotulu berrietan kalitatea zaintzea.	100				100			

<p>2.1.1.22. Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.</p> <p>Iturria: erakundearen galdetegia. E16.1, E16.2. galderak. Webean eta sare sozialetan begiratzuz.</p>	<p>Egoera</p> <p>- Argitalpen, iragarki eta publizitateak ele bietan daude eta lehenetsi egiten da euskara.</p> <p>Planerako neurria</p> <p>Arlo honetan hizkuntza-irizpideen dokumentuan jasotakoa betetzea:</p> <p>2.1.1.22 a Euskararen sustapena helburu denean; eta haur, nerabe eta gazteei (0- 18 urte) zuzendutakoak direnean edo hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egin litezkeenean euskaraz egitea.</p> <p>2.1.1.22 b Publizitate kanpainak kontratatzen direnean euskarazko leloak euskaraz sortuak izatea. Horretarako, kontratazioetan hizkuntza-baldintza hori jasotzea, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 33.3 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.</p>	<p>100</p>			<p>100</p>		
<p>2.1.1.23 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E17 galdera. Komunikazioko arduradunari galdetuta.</p>	<p>Egoera</p> <p>- Agerraldi instituzionalak ele bietan egiten dira eta lehenetsi egiten da euskara, eta bi hizkuntzen erabilera orekatua egiten da.</p> <p>Planerako neurria</p> <p>Arlo honetan hizkuntza-irizpideen dokumentuan jasotakoa betetzea.</p> <p>2.1.1.23 a- Euskararen sustapena helburu denean; eta haur, nerabe eta gazteei (0-18 urte) zuzendutakoak direnean edo hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egin litezkeenean euskaraz egitea.</p>	<p>100</p>	<p>100</p>				

<p>2.1.1.24 Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak. Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E18.1, E18.2., E18.3., eta E18.4. galderak. Informatikariei galdetuta</p>	<p>Egoera - Webgune eta sare sozialetan ele bietan egiten da, euskara lehenetsiz.</p> <p>Planerako neurria 2.1.1.24 a Arlo honetan hizkuntza-irizpideen dokumentuan jasotakoa betetzea.</p>	<p>100</p>				<p>100</p>			
---	--	-------------------	--	--	--	-------------------	--	--	--

2.1.2. arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
92,7	155,74	100	168	168

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
<p>2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.</p> <p>Datu-iturria: langileen galdetegia. L8 galdera.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Irizpideetan jasota dago langileek herritarrekiko harremanetan lehen hitza euskaraz egitea. Bestalde, langileek adierazten dutenez, maila altuan betetzen dute irizpidea.</p> <p>Indargunea Hasiera batean, jendaurreko lanpostu guztietan bermatzen da euskarazko arreta.</p> <p>Ahulgunea Alabaina, Udaltzaingoan azken urteetan mugimendu handia egon da eta guztiak ez dira euskaraz artatzeko gai.</p> <p>Planerako neurria 2.1.2.25.a Herritarrekin ahozko harremana duten bulegoko nahiz kaleko langileen kasuan (udaltzainak, HAZ, jendaurreko lanpostuak,</p>	<p>77</p>				<p>100</p>			

	gizarte zerbitzuak, Zerbitzuetako langileak, kale-garbitzaileak...) euskararen erabileraren inguruko azterketa egitea eta egoera hobetzeko baliabideak (sentsibilizazio-ekimena...) eskaintzea.							
--	---	--	--	--	--	--	--	--

	<p>2.1.2.25.b Udalak udaltzainen lanpostuak egonkortzea.</p> <p>2.1.2.25.c Arlo honetan hizkuntza-irizpideen dokumentuan jasotakoa betetzea: “langileek euskaraz esango dizkiote lehen hitza eta lehen esaldia herritarrari”.</p>								
<p>2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.</p> <p>Datu-iturria: langileen galdetegia. L9.1 eta L9.2 galderak.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Langileek adierazten dutenez, oso maila altuan betetzen dute irizpidea. Hasiera batean, jendaurreko lanpostu guztietan bermatuta dago euskarazko arreta, jendaurrean diren langile gehienak euskaldunak baitira. Hala ere, hutsune nabarmen bat dugu Udaltzaingoan. Azpikontrataturako zerbitzuetan herritarrei zerbitzua eskaintzen dizkieten langileak euskaldunak dira. Zerbitzuren batean ez dira langile guztiak euskaldunak, esaterako, etxez etxeko laguntza zerbitzuan. Edonola ere, zerbitzu horretan bermatzen zaie zerbitzua euskaraz izatea hala eskatzen dutenei.</p> <p>Indargunea Hasiera batean, jendaurreko lanpostu guztietan bermatzen da euskazko arreta. Hizkuntza-irizpideetan honela jasota dago: “Pasaiako Udaleko langileek lehen hitza euskaraz egingo dute beti, eta solaskideak euskaraz baldin badaki, euskaraz jarraituko dute elkarrizketa”</p> <p>Ahulgunea Alabaina, Udaltzaingoan azken urteetan gorabehera ugari gertatzen ari dira. Guztiak ez dira euskaraz artatzeko gai.</p> <p>Planerako neurria 2.1.2.26.a Herritarrekin ahoz harreman duten bulegoko nahiz kaleko langileen kasuan (udaltzainak, HAZ, jendaurreko lanpostuak, gizarte zerbitzuak, Zerbitzuetako langileak, kale-garbitzaileak...) euskararen erabileraren inguruko azterketa egitea eta egoera hobetzeko baliabideak (sentsibilizazio-ekimena...) eskaintzea. 2.1.2.26.b Udalak udaltzainen lanpostuak egonkortzea. 2.1.2.26.c Arlo honetan hizkuntza-irizpideen dokumentuan jasotakoa betetzea.</p>	97				100			

<p>2.1.2.27. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E19.1 eta E19.2 galderak. Lagina: Komunikazio arduradunak emandako informazioa eta web- orria Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>EGOERA Laginean jasotako informazioaren arabera, hizkuntza ofizial nagusia euskara izan da.</p> <p>Ahulgunea Ikastaroak eta ekitaldiak ez daude modu sistematikoan jasota, eta hizkuntza ere ez da sistematikoki jasotzen.</p> <p>Planerako neurriak 2.1.2.27a. Ekitaldien hizkuntza informazioa jasotzeko eta sistematizatzeko bidea egitea. 2.1.2.27b Ikastaroen hizkuntza informazioa jasotzeko eta sistematizatzeko bidea egitea.</p>	<p>90</p>				<p>100</p>		
<p>2.1.2.28 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak. Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E20 galdera. Lagina: HAZetik jaso dugu informazioa Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Udalak herritarrei bidaltzen dizkien idatzietan erabilera nagusia ele bietakoa da. Erroldan hizkuntza harremana markatzeko gorabeherak daude. Alderdi hau ez dago sistematizatuta, eta berezko erregistrorik ere ez du Udalak.</p> <p>Planerako neurriak 2.1.2.28a Idatzien sarrera- eta irteera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea. 2.1.2.28b Udala proaktiboa izatea herritarrei bideratzen zaizkien idatzietan. Gaur eguneko komunikazioak aztertu eta euskara hutsezkoak areagotzeko bidea landu. Herritarrek udalarekin harremanak zein hizkuntzatan nahi dituzten jasotzeko aukerak aztertzea. Herritarren hizkuntza-erregistroa edo datu-basea sortzea, 179/2019 Dekretuaren 27-2b artikuluan jasotakoa betez. 2.1.2.28c Lehentasunezkoak: idatzia euskaraz sartu dutenei eta idatziak euskaraz jasotzea eskatu dutenei euskaraz erantzutea. 2.1.2.28d Espedienteetan itzultzaile automatikoaren funtzioa txertatzea herritarrek nahi duten hizkuntzan sartzeko aukera izateko.</p>	<p>100</p>				<p>100</p>		
<p>2.1.2.29 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko</p>	<p>Egoera: - Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuen % 2ri bakarrik erantzuten zaie euskaraz. - Gainerako guztiei ele bietan erantzuten zaie.</p>	<p>100</p>				<p>100</p>		

<p>hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz. Datu-iturriak:</p> <p>Erakundearen galdetegia, E21 galdera. Lagina:</p>	<p>- Erregistro formalik ez dugunez, ele bietan erantzuten zaie automatikoki. Hala ere, puntuazioa %100ekoa bada ere, ele bietan emandako erantzunaren</p>							26
---	--	--	--	--	--	--	--	----

<p>HAZetik jaso dugu informazioa Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>araberakoa da puntuazio hori, eta ez euskaraz erantzundakoaren araberakoa. Planerako neurriak 2.1.2.29a Hizkuntza-irizpide berriak langileei jakinarazteko aurkezpen saioak antolatzea. 2.1.2.29b Idatzien sarrera- eta irteera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea. 2.1.2.29c Udala proaktiboa izatea herritarrei bideratzen dizkien idatzietan. Gaur eguneko komunikazioak aztertu eta euskara hutsezkoak areagotzeko bidea landu. 2.1.2.29d Lehentasunezkoak: idatzia euskaraz aurkeztu dutenei eta idatziak euskaraz jasotzea eskatu dutenei euskaraz erantzutea.</p>							
--	--	--	--	--	--	--	--	--

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
62,80	307,72	67,80	332,22	490

2.2.1. arloa. BARNE HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
78,10	114,81	72,70	121,47	147

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
2.2.1.32 Lan-bilerak euskaraz egiten dira. Datu-iturria: Langileen galdetegiko L12 galdera. Informazio hau neurgailu automatikoarekin (E 23 galdera) ere jasotzekoa zen baina ez dugu neurgailurik eta, beraz, iturri hori ez da erabili. Ematen den datua langileen galdetegiko erantzuna da.	Egoera Plenoan hizkuntza nagusia euskara bada ere, ele bietan izaten dira bilkurak. Saitetako Informazio Batzordeetan hizkuntzaren erabilerari buruzko erabaki batzuk hartu ziren, euskararen erabilera indartzeko neurriak hartu ziren. Teknikarien lan-bileretan euskararen erabilera altua bada ere, alde handia dago sail batetik bestera. Sail gehienetan langileek euskara gaitasun handia dute, eta bilera gehienak euskaraz egiten dituzte. Ordea, sail gutxi batzuetan, gaitasun apala dutelako edo ohituragatik bilerak gaztelaniaz egiten dira. Langileentzako batzarretan ere euskara da hizkuntza nagusia.	74,7				85			
	Egindakoak Ahozko saioak egin izan dira ia sail gehienetan. Horiekin batera, Euskaraldia ekimena ere martxan jarri da, eta ia sail guztiek parte hartu dute Euskaraldiko bi edizioetan.								
	Planerako neurriak 2.1.2.32a Lan-bilerak euskaraz izan daitezen lanketa egitea, batik bat, euskarazko atal izango direnetan.								

<p>2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. Datu-iturria: langileen galdetegia. L13 galderak. Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Galdetegietako erantzunen arabera, hainbat sailetan euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dute (% 73). Pertsona batzuek hizkuntzak nahasten dituzte, alegia, esaldi batzuk euskaraz esaten dituzte eta beste batzuk gaztelaniaz.</p> <p>Egindakoa Ahozko erabilera indartzeko saioak egin izan dira. Horretaz aparte, Euskaraldia ekimena ere antolatu izan da, nahiz eta gerora ez duen erabileran gehiegi eragin.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.1.33a Lankideen arteko ahozko harremanetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak (Euskaraldia, ...) abian jartzea. 2.2.1.33b Euskarazko ataletan euskararen erabilera zer-nolakoa den aztertzea. Eta erabilera areagotzeko konpromisoak eta neurriak (ahalduntzea, sentsibilizazioa...) hartzea.</p>	<p>73</p>				<p>75</p>			
--	---	------------------	--	--	--	------------------	--	--	--

<p>2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L15 galdera. Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera - Intranet euskara hutsean dago. Oro har, ohar eta udal barruko komunikazio orokorrak euskaraz izaten dira; baita Informatika alor eta Pertsonal Saitetik jasotzen direnak ere. - Lan-bileretako e-postako idatziak oro har euskaraz izaten dira. - Langileek galdetegian erantzun dutenaren arabera euskara hutsean idatzita dauden dokumentuen ehunekoa altua da.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.1.35a Euskarazko ataletan idatzizko lan-komunikazio guztiak euskaraz egitea, 179/2019 Dekretuaren 20.3 eta 20.2 artikuluetan jasotakoa betez. 2.2.1.35b Gainerako ataletan euskarazko idatzizko lan-komunikazioak gehitzea. 2.2.1.35c Euskarazko ataletan ESKUAKo espedienteetako txantiloia euskara hutsez sortzea.</p>	<p>87,9</p>				<p>90</p>			
---	---	--------------------	--	--	--	------------------	--	--	--

2.2.2. arloa. KANPO HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	98
93,40	91,53	94,20	92,32	

Oharra: 2025eko ebaluazioan, beste bilketa-sistema bat zehaztu kanpo-harremanen informazioa jasotzeko. Zerbitzuetako langileek ez dute galdetegia bete; eta beraz, aurreikuspenak egitean, hori kontuan izan dugu.

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
2.2.2.39 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L17 galdera.	Egoera Irizpideetan jasotakoaren arabera, ahozko harremanak euskaraz izango dira ulermena bermatuta dagoenean, nahiz eta solaskideen arabera den. Langileek galdetegian azaldu duten datuaren arabera beti edo ia beti euskaraz izaten da ahozko harremana. Datua oso ona da. Planerako neurria 2.2.2.39a Udalak proaktibo jokatzeko eta erakundeekin artean, ahoz, euskara hutsezko harremana eskatzea eta sustatzea. 2.2.2.39b Harremana euskaraz ez denean, euskaraz izan dadin bultzatze-lana egitea.	82,6				85			
2.2.2.40 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa Datuaren iturria: E26 galdera. Lagina: HAZen datuak emanda.	Egoera - Udalak bildu dituen datuen arabera, dokumentu gehienak ele bietan bidaltzen dira. Planerako neurriak 2.2.2.40.a. Udalak proaktibo jokatzeko eta erakundeekin artean, idatziz, euskara hutsezko harremana eskatzea eta sustatzea.	99				99			

<p>2.2.2.42 Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. Datu-iturria: erakundearentzako galdetegia, E27 galdera. Lagina: HAZen bitartez</p>	<p>Egoera Udalak jasotako informazioaren arabera, % 100ean ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.2.42.a. Udalak proaktibo jokatzeara eta enpresa pribatuekin euskara hutsezko harremana eskatzea eta sustatzea.</p>	<p>100</p>				<p>100</p>			
--	--	-------------------	--	--	--	-------------------	--	--	--

2.2.3. arloa. PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
43,20	31,75	60,90	44,76	73.5

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. Datu-iturria: Erakundearentzako galdetegia, E28 galdera.	Egoera: Hizkuntza-irizpideetan hau jasotzen da: “Euskararen erabileraren normalizazioari begira, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bezain eraginkorra da prestakuntza orokorra euskaraz jasotzea. Horrela bada, Pasaiaiko Udalak antolatutako ikastaroak euskaraz egingo dira ahal den guztietan. Laneko prestakuntza orokorreko ikastaroak euskaraz antola daitezkeenean, 3.HE eta 4.HE egiaztatuta duten langileek euskaraz egingo dituzte lehentasunez. 1. HE eta 2. HE egiaztatu duten langileek, ikastaroaren ezaugarrien arabera, euskaraz egin ditzaten sustatuko da”. Udalak jasotako informazioaren arabera, euskaraz % 25a bakarrik eskaintzen da. Langileak kexatu izan dira ikastaroa gaztelania hutsean jaso dutenean. Bereziki, Zerbitzuetako langileek aurkeztu dute kexa. Planerako neurria 2.2.3.43.a Udalak eskaintzen duen prestakuntza orokorra/teknikoa euskaraz izateko aukerak aztertzea, eta aukerarik ez denean, zein neurri har litekeen aztertzea, 179/2019 Dekretuaren 20.4 artikuluan jasotakoa betez.	25				50			

	2.2.3.43.b Ele bietako aukera dagoenean, lanpostuaren hizkuntza- eskakizuna betea dutenek ikastaroa euskaraz egitea.								
2.2.3.45 Hizkuntza- trebakuntza eskaini zaie langileei.	Egoera:	75				80			

<p>Datuaren iturria: E28 galdera. Erakundearen galdetegia.</p>	<p>Langile askori banan-banan eskaini izan zaio hizkuntza-trebakuntza. Gaur egun langileek idatzitako testuak zuzentzen ditugu, eta ahalegintzen gara zuzenketak langileekin partekatzen eta hobetzeko baliabideak eskaintzen. Hizkuntza-eskakizunen probetarako deialdien jarraipena egiten dugu.</p> <p>Indarguneak: Trebakuntza pertsonalizatua eskaintzen diegu.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.3.45.a Zuzenketak egiten jarraitzea eta hizkera argia erabiliz, jarraibideak ematen jarraitzea. 2.2.3.45.b Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben jarraipena egiten segitzea. 2.2.3.45c Zuzeneko hizkuntza-trebakuntza egiten jarraitzea.4</p>								
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

2.2.5. arloa. SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
71,1	69,68	75	73,50	98

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>2.2.4.48 Euskaraz sortzen dira dokumentuak.</p> <p>Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L22 galdera.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Hizkuntza-irizpidea honako hau da: oro har, barne-dokumentuak euskaraz sortzea bultzatuko da, ez soilik gaztelaniaz. Udalak jasotako datua altua da, izan ere datua galdetegiak proposatzen duen egoeratik gertu-gertu dago: “euskaraz, nahiz eta atal batzuk itzultzaile neuronalaren edo beste baliabideren baten laguntzarekin atontzen dudan”.</p> <p>Irizpidea honako hau da funtsean: euskara izango da udal barruko jarduneko hizkuntza, bai ahoz bai idatziz. Testua kanporakoa bada eta ele bietan bideratzekoa bada, itzulpena Euskara Zerbitzuan egingo da.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.5.47.a. Itzulpenen noranzkoaren gaineko txostena egitea, sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko. 2.2.5.47.b. Sail bakoitzean udal barrurako gaztelaniaz sortzen denaren bilketa egin eta euskaratzeko bidea egitea. 2.2.5.47.c. Euskarazko ataletako sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzea. 2.2.5.47.d. HE altua dutenen kasuan, sortze-hizkuntza euskara izatea sustatzea. 2.2.5.47.e. Itzulpenak euskara-gaztelania norabidean izateko urratsak egitea.</p>	71,1	75

4.5.- Genero ikuspegia planean

Egungo gizartean, egiturazko desoreka batzuk badira, baita desberdintasun horiek indartu eta betikotzen dituzten zenbait mekanismo ere. Egiturazko desorekak antolaketa sozioekonomikoari dagozkionak dira, batez ere sexuaren arabera lan banaketaren, bizitza pribatuaren antolaketaren eta antolaketa soziopolitikoaren bidez sortutakoak:

·Sexuaren arabera lan banaketa: emakumeen eta gizonen presentzia desorekatua dago lan erreproduktibo (zaintza) eta produktiboaren (lan ordaindua) artean. Ordaindu gabeko zaintza lanak emakumeek egiten dituzte gehienbat, eta produkzio lanak, berriz, gizonek. Gainera, lan merkatuan emakume edo gizon izan jarduera eta sektore jakin batzuetan biltzen dira nagusiki (segregazio horizontala) eta postu eta kategoria jakin batzuetan (segregazio bertikala). Bi kasuetan ere, emakumeek balio gutxiagoko jarduerak egiten dituzte eta soldata txikiagoak jasotzen dituzte. Horrek ondorio zuzena du bereizkeria egoerak betikotzean.

·Bizitza pribatuaren antolaketa: gizartea antolatzen da heterosexualitatea eta sexuen arteko osagarritasuna oinarri hartuta. Funtzionatzeko arauak eta ohiturak finkatzen dira: nork zaintzen du, nork hartzen ditu erabakiak, nola banatzen dira baliabideak... Horrek dependentzia egoerak sor ditzake.

·Antolaketa soziopolitikoak: oraindik ere desoreka handiak daude gizonen eta emakumeen artean; emakumeen parte hartze soziopolitikoak txikiagoak da, eta gizarte eskubideak eskuratzeko mugak dituzte; izan ere, gizarte eskubideak, hein handi batean, lan merkatuan parte hartuz lortzen dira, eta parte hartze horretan desoreka handiak daude.

Egoera hauei aurre egiteko, Pasaiako Udalak 2023-2027 epealdirako bere II. Berdintasun Plana onartua dauka. Plan honen printzipio gidarien artean honakoa ageri da:

“INTERSEKZIONALITATEA: Pasaiako emakume guztiak ez dira berdinak, ez daude zapalkuntza ardatz berdinak gurutzatuta, eta askotariko posizio sozialetan daude. Ezinbestekoa izango da interseksionalitate ikuspegitik begiratzea Pasaiako emakumeen errealitateari, genero zapalkuntza beste zapalkuntza sistema batzuekin ere artikulatzen delako; hala nola klasea, arraza, jatorria, adina, aniztasun funtzionala, hizkuntza, identitate sexuala...”

Plan honen garapena aipatutako testuinguruan errotuta egonik, beharrezkoa izango da desberdinkeriei aurre egiteko neurri zuzentzaile eta kontzienteak hartzea. Hori dela eta, planaren inplementazioan beharrezkoa izango da une oro begirada hau zaintzea. Hurrengo gaitan neurriak planteatzen dira:

Formazioa

Udalaren barne mailan hizkuntza eta generoari buruzko formakuntza eskainiko da. Honako hauek dira, beraz, Pasaiako II. Berdintasun Planaren testuinguruan helburu horretara bideratu ditzakegun ekintzak:

+ Berdintasun Planeko 1.1 Helburu estrategikoari, hau da, **Genero ikuspegia txertatzeko formazioa eta trebakuntza eskaintzeari** dagokionez:

Berdintasuna zehar-lerro gisa txertatzeko formazioa eskaini udal sailei eta jarduera edo sail bakoitzari berariazko trebakuntza eskaintzea, honen baitan udal langileei komunikazio inklusiboari buruz formazioa emanez (lehentasunez informazioa sortzen ari diren langileei).

Komunikazio inklusiboa

Irizpide honek islada garbia du udalaren edozein mailatan, izan ere udalak sustatu edo babestutako proiektuetan **ezinbesteko baldintza izango da euskarri komunikatibo, dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzea, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestea eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta rol, orientazio eta sexu-identitate aniztasunaren aldeko irudia sustatzea.**

Irizpide horiek beharrezkoak dira; izan ere, hizkuntzaren bidez, daukagun errealitatea deskribatzen dugu. Baina, halaber, hizkuntzak berak errealitatea eraikitzen du, eta zentzu horretan, berau eraldatzeko ekarpena ere egiten du. Eta horrek berebiziko garrantzia du hainbat gaitan, baita genero berdintasunaz ari garenean ere. Izan ere, komunikazio inklusiboaren erabilera bultzatzea urrats garrantzitsua da genero diskriminazioa dakarten portaerak eta jarrerak ezabatzeko eta, hala, mikromatxismoak murrizten lagundu eta askotariko genero errealitateak ikusteko. Ondorioz, plangintza honetan ere, hizkuntza politika eta praktikak sustatzearekin batera, hizkuntza modu inklusiboan erabiltzea sustatuko da. Honako hauek dira, beraz, Pasaiako II. Berdintasun Planaren testuinguruan helburu horretara bideratu ditzakegun ekintzak:

+ Berdintasun Planeko 1.2 Helburu estrategikoari, hau da, **Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeari** dagokionez:

Udal komunikazioetarako irizpideak adostea eta ondorioz:

-Euskarazko komunikazio inklusiborako gidak hedatzea: Jarraibide gisa erabil daitezke hizkera inklusiboa erabiltzeko gida hauek: [EHUren gida](#) eta [Gipuzkoako Foru Aldundiaren gida](#).

-Sortzen diren euskarrietan genero estereotipoak ekiditea.

-Genero estereotipoekin lotutako espresioak saihestea.

-Erabiliko ditugun hausnarketa, adibide, lelo, esaldi eta antzekoetan emakumeen ekarpenak ere ikusaraztea.

Datu bilketa eta estatistiketan sexu aldagaia

Historikoki, estatistikak eta azterlanak diseinatzerakoan ez dira kontuan hartu emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak. Beste eremu batzuetan bezala, emakumeak ikusezin geratu dira estatistiketan eta azterlanetan. Horrek esan nahi du duela urte batzuk arte informazio partziala aurkeztu dela eta orokortu egin dela biztanleria osoarentzat. Ekitaterako bidean, estatistikak eta azterlanak ezinbesteko tresnak dira politika publikoak berdintasunera bideratzeko. Honako hauek izan daitezke plan hau garatzean datu bilketa, galdetegi eta estatistiketan sexu aldagaia kontuan hartzen dela bermatzeko ekintzak:

+Berdintasun Planeko 1.2 Helburu estrategikoari, hau da, **Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeari** dagokionez:

- Datuak sexuaren arabera bereizita jaso eta aurkeztea.
- Irakurketak egitean, bereizitako datuak kontuan hartzea.
- Beharrezko neurri zuzentzaileak diseinatzea.

Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua

Emakumeek gizarteko esparru guztietan parte hartze osoa eta bidezkoa izatea funtsezko giza eskubidea da. Hala ere, mundu osoan, emakumeek eta neskek ordezkari txikiagoa dute: politikatik eta entretenimendutik hasi eta lantokietara arte. Emakumeen ordezkari sozial eta politikoa parekidea ez bada, betikotu egiten dira emakumeek historikoki bizi izan dituzten desberdintasunak, eta genero arrakalak zabaltzen. Hori dela eta, bereziki zaindu behar da emakumeek erabilera planean (eta horren barruan antolatzen diren saio, formazio, lantalde, bilera eta abarretan) duten parte hartzea; eta parte hartzeaz hitz egitean bi alderdiz hitz egiten ari gara: egoteaz eta hitza izateaz.

Pasaiako II. Berdintasun Planak definitzen dituen helburu estrategikoei dagokienez, honako hauek izan daitezke, besteak beste, plan hau garatzean emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko ekintzak:

+ Berdintasun Planeko 2.1 Helburu estrategikoari, hau da, **Emakumeen partaidetza sozial eta politikoa handitzea eta inzidentziarako gaitasuna garatzeari** dagokionez:

-Emakumeen eta gizonen parte hartzearen jarraipena egin eta datu horiek aztertzea, eta beharrezko neurri zuzentzaileak planteatzea.

-Lantaldeak osatzeko emakumeen eta gizonen parte-hartzea kontuan hartu eta oreka sustatzea.

-Taldeetako bozeramaile/idazkarien artean oreka zaindu. Parte hartzen dutenen generoan erreparatu eta hitz hartzeak ere orekatuak izan daitezen saiatu, emakumeei hitza hartzea erraztea.

-Hitz hartzeetan besteen etenaldiak edo hitzartzeen galarazteak badaude, egoera babestea. Horretarako estrategiak: Post it-ak erabili eta errondak egitea, lantalde txikiak sortzea...

-Egoerak/funtzionamenduak ahalbidetzen badu, ardurak modu orekatuan banatzea (akta nork jaso, lidergoa...)

-Ordua zehazterakoan kontziliazio beharrak kontuan izatea (saioak, bilerak, ekintzak).

-Hasiera eta amaierako ordutegiak errespetatzeko, ezarritako denborak errespetatzea eta eraginkortasuna bermatzea.

-Errespetuzko jarrera erakustea kontziliazio beharren aurrean.

-Bilerara berandu joandako pertsonen landutakoaren laburpena egitea.

-Bileratik lehenago joan behar dutenei informaziorako aukera bermatzea, horretarako estrategiak bilatuz: akta kultur etxean uztea,

e-mail bidez bidaltzea...

-Saiotarako espazioa antolatzerakoan (aulkiak, mahaia...) kontuan hartzea: irisgarritasuna, partaidetza eroso, gertukoa...

5. 5.- 2024-2025ERAKO KUDEAKETA PLANA

5.1.- 2024-2025erako lehentasunak finkatzeko irizpideak

Atal honetan 2024an bideratzekoak diren ekintzak jaso ditugu. Ekintza hauek **aukeratzerakoan, honako irizpide hauek izan ditugu kontuan:**

1.- Hizkuntza Irizpide berrituak onartzea. Planarekin batera, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu beharra dago. 2024rako eginkizuna izango da, KEMEN metodologiarekin lerrokatuta irizpide berriak landu eta onartzea.

2.- Planaren oinarri berriak jartzea:

- Euskararen erabilera udal mailako kudeaketan txertatzeko sistema berria antolatu eta martxan jartzea.
- Jarraipenerako adierazleen aginte-panela sortzea eta aplikatzea.
- Kudeaketa transbertsala bideratzea, eta arduradun politiko zein teknikoak eta, oro har, langileak inplikatzeko.

3.- Abian ditugun ekimenei jarraipena ematea, eta ekimen berriak sortzea, bereziki, hitzarmenetako klausulak osatzea, eta kontratazioetako eta hitzarmenetako klausulen jarraipenerako prozedura finkatu eta bideratzea. Berriak sortzea udal lokalen lagapenerako eta jabari publikoaren lagapenerako hizkuntza-baldintzak.

4.- Erabileran oinarritzko irizpide sendoak ezartzea:

- Herritarrekiko harremanetan euskarazko eskaintza aktiboa egitea.
- Herritarren hizkuntza hautua erregistratzea zerbitzua euskaraz bermatzeko.
- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izatea, bereziki, euskarazko ataletan.
- Sortze-hizkuntza euskara izateari arreta berezia jartzea euskarazko ataletan.
- Lan-bilerak euskaraz egitea euskarazko ataletan.
- Langileei eskaintzen zaien prestakuntza orokorra euskaraz izatea.
- Kanpo-harremanak euskaraz izan daitezzen bermatzeko proaktibo jokatzeko.

Ekimenok bideratzeko, hainbat talde jarriko dira abian eta horien osaerari dagokionez honako irizpide orokor hau erabili dugu: gaiarekin lotura estuena duen saileko kide bat eta Euskara Saileko kide bat izendatzea arduradun. Taldearen osaera zehatza

arduradun horiekin batera landuko da.

5.2. 2024-2025eko kudeaketa planetik talde-lanketa eskatzen duten ekimenak

Ardura partekatua: beste arlo bat eta euskara.

5.2.1.- KUDEAKETA

Helburua/ekintza	Arduradunak
<ul style="list-style-type: none">Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea eta jarraipen sistematikoa egitea.	Euskara Gaiarekin lotutako teknikariak
Hizkuntza irizpideen dokumentu orokorra osatu.	Euskara

Komunikazioa

<ul style="list-style-type: none">Langileei plan estrategikoa, kudeaketa planak eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea	Komunikazio teknikaria Euskara eta sailetako arduradunak
<ul style="list-style-type: none">Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia aktiboki komunikatzea, maila desberdinetan:<ul style="list-style-type: none">Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei.Zuzeneko komunikazioa, udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte eta abarrei.	Komunikazioa Euskara Arloetako teknikariak

Hizkuntza klausulak. Kontratuak.

Helburua/ekintza	Arduradunak
Kontratuatarako irizpideen ereduaren bilduma osatu eta eskuragarri jarri.	Euskara Kontratazioa
Kontratuetoako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatu eta inplementatu.	Euskara Kontratazioa Arloetako teknikariak

Euskararen kalitatea

Helburua/ekintza	Arduradunak
Errotulazio eta hizkuntza paisaiako elementuetan hizkuntza kalitatea zaintzea , bai udalaren idatzietan eta baita azpikontratutako enpresek jartzen dituztenetan ere. Betetze mailaren berri jasotzeko jarraipen sistema adostea.	<ul style="list-style-type: none">EuskaraLangileak oro har.

5.2.2. ERABILERA

Helburua/ekintza	Arduradunak
<ul style="list-style-type: none">Ekitaldien hizkuntza informazioa jasotzea erraztu eta sistematizatzerik izango genukeen aztertu.	Komunikazioko teknikaria Dagokion arloa
<ul style="list-style-type: none">Idatzien irteera eta sarrera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea..	HAZ Euskara Arloetako langileak
<ul style="list-style-type: none">Herritarren hizkuntza hautua erregistratzeko bidea lantzea.	HAZeko burua Euskara IZFE Espedienteetako teknikaria
<ul style="list-style-type: none">Herritarrekiko harremanetan euskarazko eskaintza aktiboa egitea eta horretarako kanpaina bat bultzatzea.	HAZ Komunikazio arduraduna Euskara
<ul style="list-style-type: none">Euskarazko atal izendatuko den sailean (Haur eta nerabeen Saila) lanketa integrala egitea: lankideen arteko ahozko harremana, sortze-hizkuntza eta lan-bilerak.	Euskara Haur eta nerabeen Saila

<ul style="list-style-type: none"> • Langileei eskaintzen zaien prestakuntzan urteko zerrenda jasotzea eta hizkuntza-azterketa egitea. 	Pertsonal Saila Euskara Saila
<ul style="list-style-type: none"> • Kanpo-harremanetan euskarazko eskaintza aktiboa egitea kanpoko enpresa, hornitzaile, erakunde eta besteren zerrenda eginez, eta berariaz, gutuna helaraziz. 	Arloetako teknikariak Euskara

